

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Hezurren Gerra

WYOMING (AEB), 1872. Hezurren Gerra dela-koa lehertu zen. Edward Drinker Cope eta Othniel Charles Marsh paleontologo ezagunen arteko tira-bira gero eta gogorragoak, erreparorik eta etenik gabeko eraso bihurtu ziren, nork aurkituko dinosauro fosil eta espezie berri gehien. Garai batean, Cope eta Marsh lagunak izan ziren; batak bestearen izena ipini zion aurkitutako espezie berriren bati. Cope azkarra eta oldarkorra zen eta Marsh, aldiz, lanean mantsagoa baina metodikoagoa. 1870ean Marsh-ek Cope umiliatu zuen, *Elasmosaurus* espezieko ale bat berrosatzean burua buztanak behar lukeen tokian ipini ziola egotziz. Ordainetan, Cope Wyomingo Bridger Basin aztarnategian lanean hasi zen, Marsh-ek hura bere eremu pribatutzat jo arren. Orduan erasoak publiko bihurtu eta egunkarietara iritsi ziren.

Biak aberatsak ziren eta beren ondasunak erabili zituzten udatan Colorado edo Wyominge-ko aztarnategiak ustiatzeko. Gero, neguan, aurkitutakoa aztertu eta emaitzak argitaratzen zituzten. Baina gero eta diru eta ahalegin gehiago eskaintzen zizkieten bestearen izena eta lana txikitzeari. Ez zen lehia garbia izan, lapurreta, iruzurra, espioitza, eroskeria, arrasto suntsiketa eta irainak medio.

Ofizialki, Marsh-ek irabazi zuen gerra: 86 espezie berri aurkitu zituen eta Copek, oster, 56 baino ez. Dena den, Copek topatu zituen dinosaurorik ezagunenak: *Triceratops*, *Diplodocus*, *Stegosaurus*... Eta, azken batean, biak izan ziren galtzaille, bestea suntsitu behararren beharraz, ondasun guztiak xahutu eta porrot egin baitzuten.

Edonola ere, zientzia izan zen garaile, lehia-



Goian, Edward Drinker Cope eta Othniel Charles Marsh, gerrako bi protagonistak. Horien azpian, gatazkaren motiboa: dinosauro arrastoak.

kortasunak emaitza hobetzen omen du eta. Elkarlanaren alorrean lezio eredugarriak eman ez bazuten ere, paleontologiaren alorrean ondare eskerga utzi zuten: Gerra baino lehen Ipar Amerikan bederatzi dinosauro espezie zeuden izendatuta eta gatazka amaitzean 150 inguru. Egun, ia mende eta erdi geroago, biko-teak aurkitutako arrastoak katalogatzen ari dira oraindik. ■

ARRASTOAK



Ezkerrean, XX. mende hasierako britainiar epailea eta eskuinean, Oscar Wilde idazlea.

ERRESUMA BATUKO historiako epaiketa ezagunenaren artxi-boak publikoaren eskura ipini dituzte berriki. Interneten kontsulta daitezke, www.oldbaileyonline.org helbidean.

Old Bailey Londresko auzitegi handiaren 1674tik 1913ra gordetako 210.000 prozesutik gora ipini

dituzte sarean. Lan horretan Sheffield eta Hertfordshire-ko unibertsitateak eta Open University erakundea aritu dira batera.

Oraingoz, gehien kontsultatu den dokumentua Oscar Wilde aulkako epaiketa izan da. 1895ean auziperatu zuten Wilde, homosexuala izategatik.